



### ➤ **Zer da ISAVIC azterketa?**

"Biktimen Gaua" ikerketa zientifikoko lan berritzaile baten emaitza da, zeinaren helburua baita Euskadin eta Espainian lehen aldiz baloratzea indarkeria kolektiboak biktimetan izan dituen ondorioak. Horretarako, zuzeneko 36 biktimen eta EAEn bizi diren 2.000 pertsona baino gehiagoren bizipenez baliatu dira. Lan hori gauatzeko, metodo zientifiko zorrotz bat jarraitu da, zeina posible izan baita profesional eta erakunde askoren lankidetzari esker, besteak beste, aipatzekoak dira Epidemiologiaren Espainiako Elkarte eta Neuropsikiatriako Espainiako Elkarte eta Osasun Mentalaren Euskal Elkarte.

### ➤ **Zergatik eta zertarako egin da ISAVIC azterketa?**

Azterketa honek Osasunaren Mundu Erakundeak 2002an egindako gomendio batzuk hartzen ditu oinarritzat eta indarkeriak duen eraginaren garrantzia nabarmentzen du, hori aztertu eta tratatzera animatuz. Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitu zuen indarkeria kolektiboa: *"helburu politiko, ekonomiko edo sozial jakin batzuk lortzeko, aldi baterako edo epe luzerako talde bateko kide direla esaten dutenek beste talde baten edo gizabanako multzo baten aurka gauzatzen duten indarkeriaren erabilera instrumentala*. Hori da azterketaren ardatza. Taldeko diskurtsoen bidez adierazten den indarkeria da eta gerrak, matxinadak, terrorismoa, banden arteko borrokak, etab. barne hartzen ditu.

### ➤ **Zer azaldu du ISAVIC azterketak?**

Isavic azterketan aztergai izan dira biktimen osasuna, atentatu batetik bizirik atera diren pertsonak, senide bat hil dieten herritarrak, kale istiluetan zaurituta atera direnak, estortsioen biktimak, eta abar. Eta horiei esker, ondorio hauek atera dira:

- Indarkeria osasun publikoko arazo bat da, biktimen osasuna kaltetzen baitu modu adierazgarri eta iraunkorrean.
- Indarkeriaren ondorioak ez dira amaitzen indarkeriaren ekintza bukatzen denean. Indarkeriaren eragin negatiboak luzaroan iraun dezake, baita hamarkadak igaro ondoren ere.
- Biktima gehienek ondorio txarrak pairatzen dituzte eta ezgaituta geratzen dira osasunari dagokionean, hots, alderdi fisiko, emozional eta sozialetan;

esaterako, mugatuta geratzen da jendearekin erlazionatzeko, lan egiteko eta proiektuak gauzatzeko gaitasuna.

Azterketan parte hartu duten biktimek Euskadiko herritarrek baino 4 eta 7 aldiz arrisku handiagoa dute ondoez fisiko, emozional edo psikiatrikoa izateko. Lan egiteko eta beste jarduera batzuk gauzatzeko mugapen funtzional handiagoak izaten dituzte, zehazki %30 handiagoak. Gainera, bakarrik eta estigmatizatuta sentitzen dira.

Hauk dira kalteen ezaugarri batzuk:

- Indarkeria kolektiboak sortzen duen txoke emozionala hain da handia, ezen samin arrasto sakonak uzten baitizkie biktimei.
- Hasierako kalteak heriotza, mutilazioak eta sendatzeko oso zailak diren lesioak dira. Gero agertzen diren ondorioak, berriz, honelakoak izaten dira: samin ikaragarria, antsietatea, depresioa, somatizazioak, estres postraumatikoa, isolamendua, gizarte eta laneko zailtasunak eta etsipen sakonak, eta baita ere nortasun sentimenduaren asaldura.
- Beste batzuen sufrimendua ikusirik, askotan kaltetuak bere trauma bizitzen du berriro eta samina berpizten zaio horrela. Partida bikoitzeko biktimak dira.
- Zorionez, biktima batzuk aurrera egitea lortzen dute: hein batean trauma gainditzen dute eta esperientzia baikorrak garatzen dituzte. Pertsona horientzat garrantzitsua da beste biktima edo pertsona batzuei laguntzeko jarduera sozialetan parte hartzea.
- Beste biktima batzuk une hura gainditzea lortu zuten, uste ideologiko sendoak zituztelako edo gertatutakoari aurre egin ziotelako. Baina, gertatutakoari azalpenik aurki ezin diezaioketenak akituak eta babes gabe geratzen dira.
- Zailtasun handiagoak dituzte biktima gisa onartuak izan ez direnak edo euren saminean itxi direnak.

➤ **Zeintzuk dira gizartearen inplikazioak?**

Gizarteak funtsezko egitekoa du biktimen samina arintzeko orduan. Indarkeria kolektiboa berezko fenomeno sozial bat dela gogoratu behar dugu. Irakurketa sozial batekin interpretatu eta gauzatzen da. Gizartearen aurka egiten du eta bere egitura sozialak, bere afektu-sareak ahultzen ditu, trauma soziala edo beldur eta erruduntasunez beteriko giro bat sortuz.

Horregatik, biktimak lehengo egoerara itzul daitezten, oso garrantzitsua da, batetik, herritarren elkartasun emozionala eta laguntza soziala izatea, eta, bestetik, erakundeen laguntza eta onarpena edukitzea. Hala ere, biktimek elkartasun gutxiko bizipenak eta frustrazioak dituzte gizarteak eta erakundeek beren saminarekiko erakusten duten konpromiso faltagatik.

➤ **Zeintzuk dira azterketaren gomendio nagusiak?**

1. Beharrezkoa da ahalegina egitea:

- biktimen samina onartzeko;
- beren osasun-laguntza indartzeko, batez ere, ondorio txarrak izan dituztenentzat;
- biktimen inguru sozialak berreraikitzen laguntzeko.

2. Hasteko, biktimen eta biztanle sentsibilizatuenean beharrak ebaluatu beharko lirateke.

3. Agian, kaltetu asko oraindik isolatuta egongo dira eta isilpean sufritzen. EAEko indarkeriaren biktima guztiak identifikatu behar dira.

4. Eta, batez ere, hain mingarria den fenomeno hau eta bere ondorio suntsitzaileak saihesteko programetan inbertitu.